

IRUTXULOKO

Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, hauen erabilera onartzen duzula ulertuko dugu. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [Cookie Politika](#) [Onartu](#)

2016-06-07

Nork: [Estixu Zabala](#) -Urt 16, 2015

"SAGARDOGILEAK ZINEMAREKIN GOGORATU IZANA OSO POLITA DA"



Jose Mari Goenaga eta Jon Garaño; 'Loreak' filmeko zuzendariak

Donostiako Zinemaldian 'Loreak' filma estreinatu zutenetik, geratu gabe dabilta Jose Mari Goenaga eta Jon Garaño; zuzendari donostiarrak laudorioak jasotzen ari dira han-hemen, eta gonbidatuak izan berri dira txotx boladaren irekieran, Astigarragan.

Goenaga eta Garaño

Jose Mari Goenaga eta Jon Garaño, Astigarragako Sagardoetxearen kanpoaldean. (Argazkia: Estixu Zabala)

Pozik, oso pozik daude Jose Mari Goenaga (Ordizia, 1976) eta Jon Garaño (Donostia, 1974), eta ez da gutxiagorako. Loreak eta loreak jasotzen ari dira loreen inguruko pelikulari esker, eta protagonistak bihurtzen ari dira nonahi. Denboraldiko sagardo berria aurkeztu aurretik hitz egin zuen Irutxuloko Hitzak zuzendariekin; sagardoaz, noski, eta Goya Sarietarako jaso duten hautagaitzaz, besteak beste.

Sagardozaleak zarete?

Jon Garaño (J. G.): Noski, ni gainera, astigartarra izanik... beti esaten dut ni naizela %100 astigartarra eta %100 donostiarra, beraz, pentsa! eta jakina, sagardozaleak gara eta txotxa bera ere oso gogoko dut; sortzen den giroa, bazkaria, erritua guztia... urtero desiatzen egoten naiz bolada hasteko, eta polita da aurten gure neskek garai honi irekiera ematea.

Baduzue dagoeneko datarik sagardotegiren batera joateko?

Jose Mari Goenaga (J. M. G.): Badugu urtero sagardotegi batean ospatzen dugun lagun baten urtebetetzea; hori ziur, martxo amaieran; besteren bat ere erortzen bada hobeto. Batzuetan lortu dugu lankideekin ere bazkariaren bat egitea, eta uste dut aurten ere egingo dugula. Bizpahiru ziur egingo ditugula uste dut.

J. G.: Uste dut nik juxtu otsaila hasierarako nuela bat hitzartuta, baina Madrilen egongo gara. Espero dut nire lagunak portatzea eta beste bat egitea nirekin. Gutxienez pare bat egiten ditugu urtero; bat beti handia egiten dugu martxo lehen larunbatean, denak biltzen garelako, gehiago eta gutxiago ikusten garenak; eta besteren bat ere ziur egingo dugula.

Txotx irekierako gonbidatu nagusiak izan zarete aurten, beste hainbat konturen artean, guztiz euskaraz filmatutako pelikula batengatik. Nola bizitzen ari zarete?

J. M. G.: Bertsoena, esaterako, oso hunkigarria iruditu zait, hori ere delako beste adierazpen kultural baten bidez zure lana aipatzea; aitoren bat da, beste kultur alor batetik.

J. G.: Sagardoarena beste kultura bat dela ere aipatu dute, eta alor hori zinemarekin lotua egotea ere polita da. Azken batean, sagardoaren mundua eta sagardogileak zinemarekin gogoratu izana oso polita da. Duela hilabete pare bat deitu zidaten albistea emateko, eta izugarri poztu nintzen, oso berezia izan zen. Nire gurasoei ere badakit ilusio berezia egiten diela, eta normala da, hemengoak izanda.

Goya sarietarako izendatuak zaudete, film onenagatik eta musikagatik. Urduri zabilzate?

J. M. G.: Beno nahiko lasai gaude. Agian nonbaiten entzun da ez daukagula aukerarik, eta ez dut uste horrela denik. Badakigu aukerak txikiak direla eta horrek egiten digu ere guztia bizitzea lasaitasun handiago batekin, eta gozatuz. Ikusiko dugu otsailaren 7an zer gertatzen den Madrilen. Gu gozatzea joango gara, eta zorte ona badugu, primeran, baina guk jada jaso dugu saria.

J. G.: Horren aurretik, gainera, zinema aditua den prentsak ematen dituen Feroz Sariak izango ditugu. Hor sei izendapen ditugu; pelikula onena, zuzendari onenak, gidoia, Itziar Aizpuru aktore onenera, posterra, eta Pascal Gaignan musika. Agian ez dira Goyak bezain ezagunak, baina guretzat oso garrantzitsuak dira, prentsa berezituak ematen baititu. Hemendik bi igandeetara izango da, eta hori izango da trajea janzteko lehenengo eguna. Jose Mari esan duen moduan, hortik aurrera datorren guztia gozatzeko izango da. Urduritasunak joan dira eta oso polita izaten ari da dena.



ZERGATIK IZAN BAGERAKIDE?

AZKENAK



BULEBARRA HUSTUTZEN SAIAU DA POLIZIA



BULEBARREAN KANPATU DU GIPUZKOA ZUTIK MUGIMENDUAK



NAROA ARBIZUK IRABAZI DU LUGARITZ- IKERTZE IPUIN LEHIAKETA



ABUZZURAKO KONPONDUKO DUTE EGIAKO PASABIDEA



Ez dago iruzkinik

EGIN IRUZKIN BAT

Izena *

Email *

Website



CAPTCHA Code*

BIDALI IRUZKINA

[Nor Gara](#) | [Kontaktua](#) | [Iragarri](#) | [Tel: 943 467236](#) |
[Cookie politika](#) | [Lege Oharra](#) | [Pribatutasun Politika](#)

Gipuzkoako
Foru Aldundia



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastian
Euzko 20110114

